

POBREZIA SORTZEKO MAKINA

Kontsentsu neoliberalari ez

Adolfo Muñoz, Txiki
Bilbo, 2014ko martxoaren 3a

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Neoliberalen batzarra Guggenheimen. Hor bilduta daudenek helburu berdinak dituzte: agenda antisoziala, kapitala pilatzea eta indar progresista politiko, sozial eta sindikalak ahultzea. Euren kapitalismoan, dagoen kapitalismo bakarrean, ez dago orekarik. Eta kapitalismo honek uste du berak eragin duen krisitik indarberrituta ateratzeko aukera bat duela.

Guggenheimen benetan agintzen dutenak daude, baita hauen esanetara daudenak ere, hauek agintzeko itxurak egin arren (administrazioetako agintariak). Kapitalismo basatia jasaten ari gara; gero eta gehiago eskatzen du, eta eman egiten diote. Nortzuk dira batzuk eta besteak?

MULTINAZIONALAK ETA BANKUAK. Hauek dute zinezko boterea; egiten diren politikak bere mesedetan erabakitzen dira. Hor dugu Iberdrolako Galan, gobernuei xantaia egiten diena; berak nahi duen munduan legeek ezin dituzte mugatu irabazi gero eta handiagoak. Hor dira ere BBVA eta Santander bankuak; hauek pozarren daude finantza sektorea nola pribatizatzen ari den ikusita; diru publikoa ematen diete (debalde edo oso merke) espekulatzeko eta negozioa handitzeko.

ERAKUNDE ANTIDEMOKRATIKOAK. Nazioarteko Diru Funtza, Europako Batzordea... Erakunde hauek gobernuak zigortu egiten dituzte politika antisozialak behar bezala ezartzen ez badituzte. Hor dago Christine Lagarde, inon zergarik ez ordaintzeko estatus berezia duen anderea. Hor dago Ekonomia-Garapen eta -Lankidetzaren erakundea ere; gobernuen eta kapitalaren esanetara dagoen erakunde honen eginkizuna gobernuei diktatzea da, erreforma eta murrizketak areagotzeko.

ESPAINIAR GOBERNUA. PPren gobernuak etekina ateratzen dio PSOErekin batera ezarri zuen erreforma konstituzionalari; erreforma hari esker suntsitzen ditu eskubide laboral eta sozialak, askatasun publikoak... Inboluzioa; inboluzio antisoziala. Gobernu guztiek plantak egiten dituzte, nahi dute guk pentsatzea erabakiak "behartuta" hartzen dituztela. Baina hori ez da egia: politikak adostuta daude. Rajoyk Troikarekin batera hartzen ditu erabakiak. Espainiar gobernuko presidentek estatus ezartzen duen politika guztia Eurotaldean hitzartzen du. Erabaki ondoren, gainera, oinarri-legeak eta autonomietako gobernuen egiten dituen akordioak medio gauza bat lortzen du, estatu guztian politika bakarra inposatzea.

EUSKO JAURLARITZA ERE BILERAN DAGO. Hala da, propaganda alde batera utzita, politika publikoetako gai nagusiak PPrekin adosten dira: defizit publikoa, lehentasun osoa ematea zorra ordaintzeari, aurrekontuen diziplina, murrizketa sozialak, fiskalitatea... Gauza bera gertatzen da EAEn eta Nafarroan.

ETA MONARKIA. Errege-etxea lur jota dago, fama oso txarra irabazi du. Horregatik ateratzen dute paseoan. Azken aldiko gertakariekin agerian geratu da denbora libre zertan ematen duten; denbora libre, denbora guztia esan nahi nuen.

ANTIPOLITIKA EURENA DA. Europan gertatzen dena ezin da onartu: politika klasikoak desertatu egin du; sozialdemokrazia lotsagabea hauteskundeetarako marka hutsa bihurtu da... Bitartean, eskuin muturra hazten ari da. Ze Europa penagarria, eraikitzen ari diren hau. Gu al gara horrek kezkatzen gaituen bakarrak?

ONDORIO TAMALGARRIAK

Gertatzen dena ezin da ulertu kontutan izan gabe politika eta negozioak lotuta daudela. Hori gogoan ez badaukagu, ez gara ezertaz jabetuko.

PARLAMENTU EZDEUSAK; GOBERNU ALDAKETAREKIN EZ DA EZER ALDATZEN...

Demokrazia saboteatzen ari dira. Eta honi erabateko babesa ematen diote gobernuek eta gobernuak sostengatzen dituzten alderdiek neoliberalismoaren muga estuak onartuta. Politikan ñabardura txikiak besterik ez dira onartzen, erretorika hutsala.

BELDURRA, GIZARTEA DIZIPLINATZEKO. Gu beldurtuz gero, eurak indartsu dira. Horregatik, beren estrategian langabezia ez da kezkatzeko zerbait, propio erabiltzen duten arma baizik. Areago, hala adierazten dute: "Uneaz baliatu behar dugu; egoera aldatuz gero, egin nahi ditugun erreformak ezinezko izango dira".

POBREZIA SORTZEKO MAKINAK. INOIZ IKUSI GABEKO HONDAMENDI SOZIALA. Lasai asko aldarrikatzen dute desberdintasun sozialak areagotzea, enplegu duina kimera bihurtu dute, soziala den guztia txikitzen dute, ekonomia pribatizatu... Eskubide sozial ororen gainetik, soldatei erasoka, askatasun eta giza-eskubideen aurka, lehentasuna ematen diote lehiakortasunari eta merkatuari.

ZEINTZU DIRA LEHENTASUNAK? Ustelkeria jaun eta jabe. Alabaina, horri jazartzea ez da lehentasuna. Ustelkeria estrukturala da, eta ondo datorkie, erabilgarria delako. Europan gai bati lehentasuna soilik ematen zaio zigorra jasotzeko arriskua badakar, eta ustelkeria ez da zigortzen. Aitzitik, Europan babes sozial eta laborala zigortzen dute. Zer dela eta ez da lehentasuna ustelkeriaren jazarpena, politika zikintzen duen arren? Zergatik erabakitzen dute politika ustelduta daudenek, Espainian gertatzen den moduan? Zergatik egiten zaie entzungor inkestei, herritarren kezkarik handiena langabezia eta ustelkeria dela diotenean? Europak zergatik zigortzen du defizit helburuak ez betetzea (gizarte-gasturako bada)? Zergatik onartzen du ustelkeria, eta mahai berean esertzen da ustelduta daudenean? Zein da goi-bilera hauen helburua? Gobernuei ekaitzetik onik ateratzen laguntzea, "inportante" itxura ematea hain kakaztuta duten ospea berreskuratzeko eta berresteko, gezurra esanez, hau dela egin daitekeen politika bakarra. Sistema kapitalistak behar ditu horrelako batzarrak, beretzat oso erabilgarriak direlako eta hortan jarraitu nahi duelako.

GOI-BILERAREN IZENA ERE FARTSA HUTSA DA

Ajusteak eta murrizketak ezin dira ekonomia errearekin eta enpleguarekin bateratu. Doikuntza politikei eustean langabezia gehitzen da, eta gure jendea, pobretu. Batzarraren izena da "Egonkortasunetik hazkundera". Baina hori ez da inondik ere gertatzen. Benetakoa izatekotan, beste izen batzuk egokiagoak dira: "Pobretzea dakarten politikak", edota "Kapitala metatzeko estrategiak".

Oinarritzat esportazioa duen eredu ekonomikoa lehenetsita izugarritzko pobretzea lortzen da. Badakite; horixe egin baitute beste leku batzutan ere. Esportazio eredu multinazionalen mesederako da. Esportazioari lehentasuna emanda, soldatak jaisten dira, lanaldia luzatu, malgutasuna areagotu; gero eta pobrezia multzo handiagoak sortzen dituzte, kapitalen gaineko zergak jaitsi, ingurumenari buruzko legeak aldatu...

Eredu esportatzailea hautatu izanak munduan kalte handiak eragin ditu. Kapitalak mugitzeko erabateko askatasunak, paradisu fiskalek eta gobernuak makurrarazteko estrategiak gerra askok baino heriotza gehiago ekarri du munduan.

ESATEN DIGUTENETIK ZER DA EGIA?

Gobernuek enpleguaren aldeko politikak saltzen dituzten bitartean lanpostuak suntsitzen ari dira; gizarte-prestazioak murriztu eta aurrekontu sozialak goستن dituzte... Politika josita dago propagandaz, eufemismoz eta erretorikaz. Hona bertoko adibide batzuk!

KUTXABANKEN PRIBATIZAZIOA. Euskal politikan ere badira Troiako zaldiaren eginkizuna betetzen duten pertsonak. Sator lana egiten dute. Hori gertatu da euskal aurrezki-kutxen pribatizazioarekin.

Alemaniko aurrezki-kutxen arduradun nagusiak esan zuenez, *“kutxek lurraldeari atxikita egoteko printzipioa baztertu eta bakoitzak besteei gaina hartu nahi izan zien sektore immobilariarako maileguak ematerakoan. Eskerrak Alemanian ez dugun hutsegite berdina egin, azken urteetan askok eskuatugatik ere. Espainian -dio gizon honek- estatu-laguntzak erabili beharko lirateke Kutxak atzera ere benetako tokiko erakundeak izaten laguntzeko, eta kapital-sozietate bihurtzeko hartu duten bide okerrean atzera egiteko”*. Haatik, hemen ez dute hori nahi. Lotsagarria da.

PPko ordezkari batek ere argi asko azaldu zuen kontua: *“Kutxak kapital pribatuaren esku uzteko estrategia Kutxabank sortu zen unetik beretik erabakita zegoen”*. Hala da, estrategia pentsatuta zegoen esku pribatuetan uzteko 150 urteko historia duen guztion ondasun bat. Ez da onargarria euskal klase politikoak harridura itxurak egitea eta orain esatea auzia “epeak” direla eta ez sakoneko eredu. Honetan ere politika kanpotik ezarritako mugetara moldatzen da.

KUTXABANKentzako irtenbidea oso erraza da: Kutxa izan dadila berriro, eta eredu alda dadila, jendearen beharrezko zerbitzura egon dadin; tokiko erakundea behar dugu, negozio espekulatiboak baztertu eta ekonomia errealearen mesedetan lan egiteko.

Hemerotekari begiratu bat ematea aski da zer agindu ziguten gogoratzeko, eta hitza nola jan duten ikusteko: Esan ziguten ez zela pribatizatuko; euskal harribitxia omen zen, edota euskal banku publikoaren enbrioia... Dena gezurra zen; dagoen kontrol publiko urria ere negozio pribatuen menpe jarriko dute. Ezin zuten ametitu euskal finantza-merkatuaren erdia etekin pribatuentzat itxita egoterik. Hasieratik bazekiten. Bazekitan legeak aldatzekotan zeudela, eta tratu berdina emango ziotela BANKIari, nahiz BBK, VITAL eta KUTXari.

MANIPULAZIOAREN BESTE GERTUKO ADIBIDE BAT. 2013ko irailean EAJk eta PSE-EEk akordio bat egin zuten, izenburuak zioenez “Euskadi modernoago, solidarioago, iraunkorrago eta lehiakorrago lortzeko”. Sarreran aipatzen zenez, “*ezin dugu ahaztu krisiaren eraginak arintzeko aitzakiaz European zein Espainian aplikatu diren errezeta ekonomikoek zeharo hondatu dutela ongizate-estatua eta hainbesteko ahalegina eskatu zigun gizarteko oreka.*”

Bide horrekin bat ez gatozenok -zioen sarrerak amaieran- politika hauei aurre egiteko erabakiak hartu behar ditugu...”. Faltsukeria hutsa.

Akordio hura, gero, PPK ere berretsi zuen. Hor ikusten da hizkuntza zenbateraino manipulatu duten. Izan ere, akordioaren sarrerak ez baitu zerikusirik beren politikekin. Gaur Guggenheimera etortzea, ordea, koherenteagoa da. Hirugarren pertsonan mintzatzen dira, eurak (PSOE eta EAJ) gauza bera egiten ari ez bailiran. Ahal dugun guztietan errepikatu behar dugu: Politikak hor barruan dauden guztien artean erabakitzen dira.

Hor dugu PPrekin Kontzertuari buruz urtarrilaren 14an sinatutako akordioa. Honen arabera aurrekontu-diziplina 2017raino luzatuko da. Milaka milioi euro murriztuko dira, horrek dakartzigun kalteekin. Horregatik, diogu berriz, bat datoz egin beharreko politikei dagokienez, eta Guggenheimen biltzea koherentea da.

GIZARTE MOBILIZATUA. Erronka handi bat daukagu, gure erreferentzia sindikal, sozial eta politikoak bistatik ez galtzea. Indarrean dagoen kapitalismoak desberdintasuna, pobrezia, desegituratzea, segurtasun eza eta autoritarismoa dakar. Itxura demokratikoa duen faxismo berria da.

Hor barruan bildu direnekin ez dago akordio posiblerik. Ez dute nahi, gainera; guk men egitea bilatzen dute. Hori jakinik, ondorio bat berretsi egiten dugu: gizarte mobilizatu batek piztuko ditu politika erabat aldatzeko beharrezko diren kontraesanak.

Hori landu behar da; noski, ez da posible izango adostasun neoliberalaren altzoan.

AMAITZEKO. Gaur duela 38 urte Gasteizen bost langile hil ziren bizitza duina eta defentsa kolektiboa aldarrikatuz... Beste horiek 38 urte igarota martxoaren 3a aukeratu dute; ez dira inoiz joan. Eta hauei merezi duten harrera egin diegu. **GO HOME! Alde hemendik!**

Bilbo, 2014ko martxoaren 3a

